Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

### Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
### Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2016ko ekainaren 28an izandako ohiko bileran, aho batez onartu zuen, jarraian transkribatu den Erakunde Adierazpena:

*"2016ko maiatzaren 21ean, Mohamed Abdelaziz, Fronte Polisarioaren Idazkari Nagusia eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lehendakaria, hil egin da. Donostiako Udalak Saharako herriaren eta bere eskubideen aldeko konpromisoa berretsi eta Mohamed Abdelazizen lan gaitza azpimarratu nahi du.*

*Mohamed Abdelazizek 1968an ekin zion bere herriaren askatasunaren aldeko borrokari, eta 1973an Fronte Polisarioaren sorreran parte hartu zuen. 1978tik Fronteko Idazkari Nagusia izan da eta Saharako herriaren eskubideen eta Sahararen autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka eredugarriaren adierazle nagusi izan dugu. Askatasunaren eta bakearen aldeko ekintzaile nekaezina izan da Abdelaziz.*

*Sahararren lehendakariak utzi gaituen egunean, Donostiako Udalak doluminik zinezkoenak adierazi nahi dizkio Saharako herriari eta Fronte Polisario osoari. Bada ordua duela 40 urte hasitako deskolonizazio prozesua bururaino eramateko. NBEri eta nazioarteko komunitateari*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de junio de 2016, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*"El 21 de mayo de 2016 falleció Mohamed Abdelaziz, Secretario General del Frente Polisario y Presidente de la República Árabe Saharaui Democrática. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián quiere subrayar el arduo trabajo de Momahed Abdelaziz y el compromiso con los derechos del Pueblo Saharaui.*

*Momahed Abdelaziz emprendió en 1968 la lucha por la libertad de su pueblo, y en 1973 tomó parte en la creación del Frente Polisario. Desde 1978 ha sido Secretario General del Frente y un referente en la lucha en favor de los derechos y la autodeterminación del Pueblo Saharaui. Abdelaziz ha sido un activista incansable en la lucha por la Paz y por la Libertad.*

*El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián quiere mostrar su más sentido pésame al Pueblo Saharaui y al Frente Polisario, en un momento como este, al tiempo que manifiesta que es hora de terminar con el proceso de descolonización iniciado hace ya 40 años. Por ello, solicitamos a la ONU y a la*

HKC/CIF P2007400A / TEF/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*eskatzen diegu erreferendum bat egiteko bidea urratu eta erraztu dezatela.*

*Mohamed Abdelaziz sahararren lehendakariaren oroimenez, ostiralean, Saharako bandera Udaleko balkoi nagusian haga erdian jarrita egongo da.*

*Sahara Hurra!".*

==============================

*comunidad internacional que facilite la vía para llevar acabo un referéndum.*

*En recuerdo del Presidente de la República Árabe Saharaui Democrática, Momahed Abdelaziz, este viernes, se colocará la bandera de Sahara en el balcón principal a media hasta.*

*Sahara Libre! "*

==============================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2016ko ekainaren 29an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 29 de junio de 2016.

**IDAZKARI NAGUSIA –**
**EL SECRETARIO GENERAL:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

**Eneko Goia Laso**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
2016 EKA. JUN. 30
SARRERA / ENTRADA ....../...... IRTEERA / SALIDA 130 / 63

Idazkari Nagusia
Secretario General

Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzua
LORE MUGURUZA

Andre hori:

Honekin batera Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2016ko ekainaren 28ko bilkuran, onartutako Erakunde Adierazpenari buruzko egiaztagiri hau bidali dizut, jarraian zehazten den gaiaren ingurukoa dena:

**ERAKUNDE ADIERAZPENA, MOHAMED ABDELAZIZEN OROIMENARI BURUZKOA.**

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazi dizut.

Donostian, 2016ko ekainaren 30ean.

Estimada Sra.:

Adjunto remito certificación relativa a la Declaración Institucional aprobada, por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de San Sebastián el pasado 28 de junio de 2016, referida a:

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN RECUERDO DE MOHAMED ABDELAZIZ.**

Lo que le comunico a los efectos procedentes.

En San Sebastián, a 30 de junio de 2016.

**DONOSTIAKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA / EL SECRETARIO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6158n 2003-04